

2024ko JAIK PRESTATZEKO BILERA IREKIA

EGUNA: Martxoak 7, osteguna.

ORDUA: 18:30

TOKIA: Kalebarren 8.

2024ko jaiak prestatzeko aurreko urteko jaien balorazioko ondorio nagusiak kontutan hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Jarraian helduen saioan jasotako eta haur zein nerabeen kontseiluan jasotako ondorioak aurkituko dituzue.

HELDUEN BALORAZIO SAIOKO ONDORIOAK

ONDORIO NAGUSIAK

- Jai herrikoiak eta orekatuak izan ziren. Herrian bertan antolatutako gauzak zeuden, baina kanpotik ere ekarri behar dira gauzak, herri txikia delako hau.
- Jaien antolaketa partehartzaileagoa izan behar da, adin eta kolektibo ezberdinetako herritarrekin batera antolatuz.
- Jende gutxi ibili zen jaietan, beste herri batzuetako jaiekin batera tokatu zirelako, jendea kanpora joaten delako, ohiturak aldatzen ari direlako, jai luzeak izan direlako...besteak beste.
- Jaiak herritarrentzako ala kanpotarrentzako nahi ditugun pentsatu behar da.
- Jende asko dagoenean gatazkak ere ugaritzeko arriskua egoten da.
- Kanpotik jendea etor dadin autobus zerbitzua jartzea erabaki ona da.
- Genero kontuak gehiago zaindu behar dira, batzuetan kosta egiten den arren. Kontratazioetan gizonezkoak izan ziren nagusi, kirol jardueretan emakumeen presentzia bultzatu behar da, zezenek giro maskulinoa ekartzen dute.
- Jai eredia berrasmatu behar da, emakumeen parte hartzeari begira.
- Kultur aniztasunaren ikuspegitik hutsuneak egon ziren ekintzen eskaintza egiterakoan, baita 12-16 urte arteko gaztetxoentzako ekintzak antolatzeko orduan ere.

HELDUEN PROPOSAMENAK

Zerrenda honetan ondorengo proposamenak sartu dira:

- **Helduen balorazio-bileran** 10 puntu baino gehiago jaso zituzten ekintzak eta bileren parte hartu zutenek proposatu zituztenak.

- Herritarrek antolatutako kontzertua.
- Zezena.
- Bertso jaialdia
- Bakailao lehiaketa.
- Gaiteroak.
- Kantujira.
- Apar festa.
- Oihan Vega.
- Pilota partidak.
- Gazteen bazkaria.
- Galtzagorriak txaranga.
- Salda eta txorizoa
- Ekintza txiki parte hartzaileak (Azeituna, toka...)
- Kirol jarduera mistoak.
- Nerabeentzako ekintzak.
- Kulturartekotasuna sustatzeko ekintzak.
- Zaharren egoitza herrira ekarri.
- Baltsa jaitsiera.
- Herri jolasak.
- Herri bazkaria.
- Mus-tute txapelketa.
- Munduko Arrozen egunean bazkaria elkarrekin.

HAUR ETA NERABEEN BALORAZIO SAIOKO ONDORIOAK

ONDORIO NAGUSIAK

- Haur eta nerabeen asebetetze-maila handia da, nola pasa dutenari buruzkoa zein antolatutako ekintzen gainekoa.
- Lagunekin egotea, barraketan ibiltzea, zezenak eta kontzertuak dira beraien ohitura edo gustuko gauzarik errepikatuenak.
- Faltan bota dituzten gauzarik nabarmenenak: Barraka-gune hobea (lapikoa falta), haurrentzako zezenak eta beraientzako moduko kontzertuak.
- Egin dituzten bestelako proposamenen artean kontuan izatekoak dira: Beraientzako moduko lehiaketak edo txapelketak antolatzea (Futbola, sukaldaritz...).)

HAUR ETA NERABEEN PROPOSAMENAK

- **Haur eta Nerabeekin egindako balorazio-bileran** ondoen baloratu zirenak eta jasotako proposamenak.
 - Eskulan-tailerra.
 - Tirolina.
 - Zunba.
 - Gurpildun zezenak.
 - Krosa DBHkoentzat.

- DJ jaia gaztetxoentzat.
- Su festak.
- Zezen suzkoa.
- Gaztetxoentzako lehiaketak.
- Herri kirolak gaztetxoentzat.
- Gaztetxoentzako kontzertuak.
- Bertsolariak.
- Barrakak. Lapikoa eta gaztetxoagoentzako barrakak.
- Buruhandiak.
- Oihan Vega.
- Zezena.
- Txaranga.
- Goazen.